Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

2245

57/2010 EBAZPENA, otsailaren 15ekoa, Gurutzetako Ospitaleko zuzendari gerenterena, Gurutzetako Ospitaleko zuzendariorde medikua lanpostuan jarduteko Francisco Javier Pilar Orive jauna izendatzen duena.

Aztertu dugu Gurutzeko Ospitaleko zuzendariorde mediko lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Gurutzetako Ospitaleko zuzendari gerentearen azaroaren 2ko 4997/2009 Ebazpenaren bidez egin zen, eta 2009ko azaroaren 2ko EHAAn argitaratu zen (210. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Francisco Javier Pilar Orive jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori dela eta, Kudeaketa Zuzendaritza honek hau

EBATZI DU:

Lehengoa.– Francisco Javier Pilar Orive jauna Gurutzetako Ospitaleko zuzendariorde mediko izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera emango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gurutzeta-Barakaldo, 2010eko otsailaren 15a.

Gurutzetako Ospitaleko zuzendari gerentea,
GREGORIO ACHUTEGUI BASAGOITI.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

2245

RESOLUCIÓN 57/2010, de 15 de febrero, del Director Gerente del Hospital Cruces, por la que se nombra a D. Francisco Javier Pilar Orive para desempeñar el puesto de Subdirector Médico del Hospital Cruces.

Vista la convocatoria para cubrir el puesto de Subdirector/a Médico del Hospital Cruces, publicada en el BOPV n.º 210, de 2 de noviembre de 2009, mediante Resolución 4997/2009, de 25 de septiembre de 2009, del Director Gerente del Hospital Cruces.

Resultando que finalizado el plazo de presentación de solicitudes, ha sido estudiada la documentación presentada por los aspirantes al desempeño del puesto de que se trata, habiéndose valorado sus condiciones profesionales conforme a los méritos aportados en el «Curriculum Vitae».

Considerando que, a la vista de la documentación presentada, D. Francisco Javier Pilar Orive se adecua al perfil del puesto convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo.

En virtud de cuanto antecede, esta Dirección Gerencia,

RESUELVE:

Primero.– Nombrar a D. Francisco Javier Pilar Orive, Subdirector Médico del Hospital Cruces.

Segundo.– El presente nombramiento surtirá efectos económicos y administrativos desde el día 1 de enero de 2010.

Tercero.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su notificación.

En Gurutzeta-Barakaldo, a 15 de febrero de 2010.

El Director Gerente del Hospital de Cruces,
GREGORIO ACHUTEGUI BASAGOITI.